

Ikasgaiaren izena Kodea. Praktikak enpresetan	ECTS kredituak 12. ECTS Derrigorrezkoa
Ikasketa planean duen kokapena eta iraupena HIRUGARREN MAILA - SEI HILEKOA	Modalitatea Presentziala
<p>Ikasleak ikasgai honekin bereganatuko dituen kompetentziak</p> <p>- Oinarrizko kompetentziak</p> <p>(Kodea)- Praktika errealak, komunikazioaren sektorearekin lotura duten enpresetan, sektoreko lan esparrua ezagutzeko</p> <p>(Kodea)- Lanak eta proiektuak modu akademikoan aurkeztea eta azaltzea, zenbait ikasle eta irakasleren aurrean, dagozkien komunikazio baliabideak behar bezala eta eraginkortasunez erabiliz</p> <p>(Kodea)- Komunikazioaren arloan prestakuntza iraunkorrek zenbaterainoko garrantzia duen jabetzea, enpresetan egindako praktiken bidez</p> <p>- Zeharkako kompetentziak</p> <p>(Kodea)- Ekintzailtza eta berrikuntza</p> <p>(Kodea) - Taldekako lana</p> <p>(Kodea)- Ikasten ikastea</p> <p>(Kodea)- Espiritu kritikoa eta konpromiso etikoa</p>	
<p>Ikasleak ikasgai honekin bereganatuko dituen ikaskuntza emaitzak</p> <p>Komunikazio enpresen lana eta antolaketa ezagutzea Praktikak egitea komunikazio arloko enpresetan Unibertsitateko ikasketetan bereganatutako ezagutzak eta trebetasunak dagokien enpresa esparruan aplikatzea Lan akademikoen egitura eta ezaugarriak identifikatzea eta erabiltzea Ikaslearen prestakuntza iraunkorrek gaur egun duen garrantziaren gakoak identifikatzea Enpresetan egindako praktiken bidez eta horien gaineko gogoetaren bidez garatutako prestakuntza iraunkorraren balioa aintzat hartzea</p>	
<p>Ikasgaiak profil profesionalari egiten dion ekarpena</p> <p>Ikus-entzunezko Komunikazioa graduko lehen hiru urteetan bereganatutako ezagutzak praktikan jartzeko aukera izango dute ikasleek ikasgai honen bidez. Era berean, bertatik bertara ezagutu ahal izango dituzte norberaren profilari dagokion lanaren nondik norakoak.</p>	
<p style="text-align: center;">Irakaskuntza-ikaskuntza metodologia, eta ikasleak bereganatu beharreko gaitasunekin duen harremana</p> <p>MT1. Eskola magistralak MT2. Kasuak aztertzea MT3. Problema ebaztea MT4. Proiektuak</p>	

Prestakuntza jarduerak

Jarduera presentzialak

- JP1. Taldean bideratutako ikasketa eta lana, honako hauetan oinarrituta: kasuak, problemak edo proiektuak, lan kooperatiboa...
- JP2. Eskola magistralak/Hitzaldiak
- JP3. Eskola praktikoak
- JP4. Ahozko azalpenak
- JP5. Tailerrak
- JP6. Jarraipenerako tutoretzak
- JP7. Mintegiak
- JP8. Praktikak ikastegian/Kanpoko bisitak
- JP9. Aurkezpenak
- JP10. Simulazioak/Rol jokoak
- JP11. Landa lana

Ez-presentzialak

- JEP1. Ikasketa eta lan autonomia
- JEP2. Taldekako ikasketa eta lana

Ikasleak bereganatutako konpetentziak ebaluatzeko sistema

- EB2. Banakako lanak
- EB4. Banakako proba presentzialak

Edukien laburpena

Praktiken helburua da lan egitea eta dokumentu bat prestatzea, ikasketetako lehen hiru urteetan barneratutako gaitasunak integratzeko ariketa modura. Era berean, ikasleak praktiken bidez laneratzea ere lortu nahi da.

- Praktikak egitea. Ikasleak hainbat arlo aukera ditzake:
 - Telebista
 - Bideoa
 - Prentsa idatzia
 - Irratia
 - Produkzio etxe zinematografikoak
 - Internet
 - Komunikazio bulegoak
 - Enpresak
 - Erakundeak
- Praktikaldiko dokumentua egitea
 - Praktikak egiten ari diren ikasleek tutore bana izango dute helmugako enpresan